

ISLAMA ETA AL ANDALUS

Islam:

Jainko bakarrarengan sinesten duen erlijio monoteista da, Arabian sortua VII. mendean.

Musulman:

Mahomak erakutsi zuen erlijioaren jarraitzailea da.

Mahoma:

Islamaren sortzailea (Meka, 570 - Medina, 632). Tradizio musulmanaren arabera, Gabriel goi-aingeruak iragarri zion Alaren profeta zela eta erlijio berria predikatu behar zuela. Jainkoagandiko errebelazioak hartu zituen eta hitzez hitz idatzi, horrela *Korana* osatuz. Mahoma hil zenean, Arabia osoak islama onartua zuen.

Profeta:

Jainkoaren inspirazioz eta izenean, hark gizon-emakumeentzako agertu nahi duen nahia eta mezua aldarrikatzen duen pertsona da. Adib.: Jesus profeta, Mahoma profeta.

Hejira:

Mahomak Mekatik Medinara ihes egin behar izan zuen urtea, kristau-aroaren K.o. 622. urteari dagokiona eta musulman-aroari hasiera eman ziona. Mahomaren mezua politeismoaren aurka zegoen eta mehatxu izaten hasi zen tribuetako buruzagientzat; hori dela eta, jazarpenak jasan zituen eta ihes egin behar izan zuen.

Koran:

Musulmanen liburu sakratua da. San Gabriel goi-aingeruak Mahomari errebelatutako Alaren hitza azaltzen du. 114 ataletan banatuta eta arabieraz idatzita dago. Erlijio-liburua ez ezik, musulmanen eguneroko bizitza eta gizartea arautzen ditu ere.

Meskita:

Otoitz egiteko, irakasteko eta fededunak biltzeko eraikin sakratua da. Meskitaren arduradun nagusia imana da, otoitza zuzentzen duena. Meskitaren egitura oso sinplea da: patio zabal bat, otoitz egiteko areto bat eta minaretea.

Iman:

Musulmanen artean, erlijio-ospakizuna eta otoitza zuzentzen duen pertsona.

Ulema:

Testu sakratuen doktoreak edo interpretatzaileak dira.

Sunita (sunni):

Islamismoaren adar nagusia (% 90), sunna oinarrizko iturri erlijiozko eta moraltzat hartzen duena; sunna Mahomaren esanen eta eginen bilduma da. Kalifek islama zuzendu behar dutela esaten dute, Mahomarenganako loturak kontuan hartu gabe.

Xiita (xii):

Islamismoaren adarretako bateko kidea (% 10). Xiiak, Mahomaren suhia zen Ali kalifaren jarraitzaileak dira. Mahomaren ondorengotza Aliren ondorengoei dagokiela sinesten dute; elkarte musulmanaren buru edo imanak Aliren jatorrikoa izan behar du.

Kalifa:

Islamaren buruzagi gorena, botere erlijiosoa eta politikoa zituena.

Emir:

Herri musulmanetan, aginte politikoa edo militarra duen buruzagia.

Kadi:

Musulmanen artean, justiziaren ardura duen epailea.

Bisir:

Printze musulman baten ministroa.

Arabiar:

Arabieraz mintzatzen den herri-multzoko kidea. Gutxi ziren, baina konkista zuzendu zuten. Politikaren eta gizartearen elitea ziren; karguak eta lurraldearen jabetza haien eskuetan zeuden.

Berbere:

Afrikako iparraldeko etnia ugarieneko eta zaharreneko kidea. Afrika iparraldetik armada konkistatzailearekin batera iritsiak eta Penintsulara bizitzera etorritakoak. Asko artzain lanetan aritzen ziren eta gizartean maila apal samarra zuten.

Muladi:

Islamera bihurtutako hispaniar-bisigodoak ziren. Erlijioaz gain, konkistatzaileen ohiturak eta hizkuntza ere hartu zituzten. Gehienak ziren.

Mozarabiar:

Kristau izateari eutsi zioten hispaniar-bisigodoak ziren. Gehienak hirietan bizi ziren. Askoren kontrako jazarpenak izan ziren eta, horren ondorioz, erreinu kristauetarantz emigratu zuten.

Judu:

Antzinako Palestinako, eta gaur egun munduan zehar barreiatua dagoen komunitate etniko, kultural eta historiko bateko kidea, Judaismoa praktikatzen duena. Musulmanekin iritsitakoak, artisautzan, merkataritzan, medikuntzan eta zientzian aritzen ziren.